

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1546

AGINDUA, 2026ko apirilaren 1ekoa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan dauden mahastietan uzta berdea egiteko laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta 2026. urterako deialdia.

Euskadiko mahastizaintza eta ardogintzaren sektorearen inguruabarrek kezkarri izaten jarraitzen dute. Egoera gogor hori COVID-19aren pandemiarekin hasi zen, eta egoerak okerrera egin zuen, besteak beste, Errusiak Ukraina inbaditu zuelako eta Israel eta Palestinaren arteko gatazkak bere horretan dirauelako, erregaiak, energia, lehengaiak eta beste hornidura batzuk garestituta. Horrez gain, AEBen politika protekzionista eta Brexitaren ondorioz merkataritzak dituen zailtasunak ere aipatu behar dira, baita gaur egun munduko merkataritzari dagokionez dagoen ziurgabetasun-giroa ere. Horren guztiaren ondorioz, ahalegin handia egin bada ere, ezin izan da merkatu horren normaltasuna berreskuratu gure autonomia-erkidegoaren eremuan, bereziki Arabako Errioxan, Errioxa JDK jatorri-deituraren babeseko ardogintzan baitihardute eskualde horretan.

Desorekak, beraz, bere horretan dirau, nahiz eta eskaintza murrizteko ahalegina egin den, besteak beste, aurreko urteetan, uzta berdeko esku-hartzea aplikatuta. Esku-hartze hori, 2025. urtean, Arabako lurralde historikoko 841 mahasti-hektareatan egin zen, Errioxa JDKren eremuan, hau da, ekoizpen horretarako mahasti-azaleraren % 7 inguru, eta 37.000 hektolitro inguru kendu ziren merkatutik. Horregatik aktibatuta nahi du Eusko Jaurlaritzak 2026. urterako uzta berdeko esku-hartzea, tresna hori berriz ere Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintzaren sektorearen eskura jartzeko 2025-2026 kanpainarako, eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka berrezartzen laguntzeko, beste neurri batzuk ere aplikatuta.

Gogoeta horiek eginda, Eusko Jaurlaritzak, 2026ko urtarrilaren 14an, uzta berdea egiteko neurria aktiba zezala eskatu zion Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Fruta, Barazki eta Mahastizaintza eta Ardogintzaren Zuzendariordetza Nagusiari, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren Esparruan Mahastizaintza eta Ardogintzaren Sektoreko Esku Hartzea arautzen duen urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 34. artikuluari jarraituz. Euskal Autonomia Erkidegoak eta beste autonomia-erkidego batzuek egindako eskaerari erantzunez, 2026. urtean uzta berdea abian jartzeko aurrekontua finkatu du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Nekazaritzako Ekoizpen eta Merkatuen Zuzendaritza Nagusiak Mahastizaintza eta Ardogintza Sektoreari Laguntzeko Programan, 2026ko otsailaren 26ko BOEn argitaratu zen 2026ko otsailaren 24ko Ebazpenaren bidez.

Europar Batasunak ezarritako Merkatu Antolakunde Erkidearen (MAE) helburuen artean dago, besteak beste, mahastizaintza eta ardogintzaren merkatuan eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka berreskuratzea, merkatu-krisirik egon ez dadin. Horrela, (EB) 2021/2115 Erregelamenduak (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko abenduaren 2koa) arauak ezarri ditu estatu kideek Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan egin behar dituzten plan estrategikotarako laguntzari dagokionez (NPEren plan estrategikoak) –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatutako laguntza–, eta indargabetu egin ditu (EB) 1305/2013 eta (EB) 1307/2013 erregelamenduak. Bere 58. artikuluan uzta berdea jasotzen du ardoaren sektorean ezarri beharreko esku-hartze moten artean, eta laguntza hori mugatzen du mahats-mordoak suntsitu edo kentzeak duen zuzeneko kostuen eta suntsitze edo kentze horrek diru-sarreretan eragiten duen galeraren baturaren % 50era.

Deialdi hau bat dator 66/2024 Dekretuan xedatutakoarekin –66/2024 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko dena–. Dekretu horrek 66. artikulutik 69. artikulura bitartean xedatzen du nola garatu behar den «uzta berderako» laguntzaren deialdia Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoaren eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Laguntza hauen kudeaketa, berriz, 275/2020 Dekretuak ezarritakoaren mende egongo da –275/2020 Dekretua, abenduaren 9koa, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko–.

Izapidetzen ari den laguntza-programaren helburuak bat datoz Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 2026rako, 2027rako eta 2028rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoko helburuekin. Plan hori Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2026ko martxoaren 4ko Aginduaren bidez onartu zen.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua araber, sailburuek, Jaurlaritzako kide gisa dagozkien eskumenak alde batera utzi gabe, eskudantzia dute, besteak beste, beren sailari dagozkion gaitan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko.

Hori dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Deialdia eta oinarriak.

Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan dauden mahastietan uzta berdea egiteko laguntzak arautzen dituzten oinarriak, eta deialdia egitea, Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoan ezarritako Ardoaren Sektoreko Esku Hartzearen esparruan (eranskinean daude jasota).

Bigarren artikulua.– Presa.

Deialdi hau arautzen duen prozedura presaz izapidetzea erabakitzea.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ezinbesteko kasuak eta salbuespenezko inguruabarrak.

Agindu honetan aurreikusten diren ondoreetarako, ezinbesteko kasuak eta salbuespenezko inguruabarrak daudela aitortu ahal izango da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/2116 Erregelamenduaren 3. artikuluan ezarritakoaren araber, bai eta onuradunari egotzi ezin zaizkion beste arrazoi batzuk alegatzen diren kasuetan ere, ukalezina den dokumentu bidezko froga bat aurkezten bada eta dagokion lurralde historikoko organo kudeatzaileak berariazko ebazpen baten bidez onargarritzat jotzen baditu, aipatutako erregelamenduaren 3.2 artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Interes-gatazka, eta iruzurra prebenitzea.

Aurrekontua gauzatzeko kudeaketan zuzenean, zeharka eta modu partekatuan parte hartzen duten finantza-eragile guztiek, prestakuntza-, auditoretza- edo kontrol-lanak egiten dituztenek barne, interes-gatazkarik ez dagoela adierazteko funtzionarioentzako eredu bat sinatu beharko dute.

2026ko apirilaren 10a, ostirala

Halaber, interes-gatazkaren arriskua dagoenean, tarteko den pertsonak hierarkian gorago daukan pertsonari helaraziko dio gaia, eta hark idatziz berretsiko du interes-gatazkarik dagoen ala ez. Erantzuna baiezkoa bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak zainduko du dena delako pertsonak bertan behera uzten duela laguntza-deialdi honen inguruko jarduera oro.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 1a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.

ERANSKINA

OINARRIAK

1. oinarria.– Helburua, aplikazio-eremua, definizioak eta finantzaketa.

1.– Helburua eta aplikazio-eremua.

Oinarri hauen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan dauden mahastietan uzta berdea egiteko laguntzak arautzea.

Uzta berdetzat joko da ardotarako mahatsa ekoizteko erabiltzen diren eta mahastiak landatzeko indarrean dagoen araudia betetzen duten mahastietako mahats-mordoak erabat suntsitu edo kentzea, mahats-mordoak oraindik heldu gabe daudenean, eta lurzatiaren errendimendua ezerezean geratzea; laguntzaren xede den lurzatian, ezingo da mahatsik geratu bildu gabe.

2.– Definizioak.

Agindu hau aplikatzeari begira, definizio hauek ematen dira:

a) Jabea: mahastia dagoen lurzatiaren jabetza-titulua duen pertsona edo pertsonen taldea –taldearen edo taldekideen forma juridikoa edozein dela ere–.

b) Laguntza-eskatzailea: mahastizainek eskatu ahal izango dute uzta berderako laguntza, eta hauek joko dira mahastizaintzat: pertsona fisiko edo juridikoak edo pertsona fisiko edo juridikoen taldeak –taldearen edo taldekideen forma juridikoa edozein dela ere–, mahastiz landatutako azalera bat dutenak jabetzan, edo errentan, apartzeria-kontratu bidez edo dagozkion tributuen likidazioaren bitartez froga daitekeen eta zuzenbidearekin bat datorren beste edozein modutan hartuta, betiere mahats-bilketa mahastizaintzako eta ardogintzako produktuen merkataritza-ekoizpena bideratzen badute.

Deskribapen hori betetzen dutela ulertuko da eskabideak aurkezteko epea hasten den egunean dagokion mahastizaintza-erregistroan mahastiz landatutako azalera bateko mahastizain gisa dagoeneko inskribatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoen edo titulartasun-aldaketa eskatua dutenen kasuan.

c) Mahastizain gaztea: laguntza-eskabidea aurkezten duen urtean 40 urte baino gehiago betetzen ez dituen eskatzailea.

Eskatzailea pertsona juridikoa denean, eta irizpide hori ezin bada zuzenean egiaztatu, baldintza hori bete behar du, gutxienez, pertsona juridiko horren barruan erabakimena duten pertsona fisikoaren % 50ek; hau da, pertsona juridikoaren kapital sozial osoaren erditik gorako partaidetza izan behar dute pertsona horiek, edo haren barruan boto-eskubideen erdia baino gehiago.

d) Mahasti-lurzatia: mahastizain bakar batek mahatsondoa lantzen duen lursail-azalera jakina. Erreferentzia alfanumeriko bat edo gehiago dituen esparru batek edo esparru-multzo batek osatzen dute, eta Nekazaritza Lurzatiak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistemari (SIGPAC) egoten da grafikoki irudikatua.

e) Laguntzaren xede den mahastizaintza-azalera: mahastiz landatutako azalera, mahats orpoen kanpo-perimetroak eta, horri gehituta, ilaren arteko distantziaren erdia hartzen duen tartea mugatzen duena, Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko (EB) 2022/126 Erregelamendu Delegatuaren 42. artikulua ezartzen duen bezala. Erregelamendu horrek osatu zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/2115 Erregelamendua, nekazaritza- eta ingurumen-baldintza onen 1. arauari dagokion proportzioari buruzko arauari dagokienez eta esku-hartze jakin batzuei aplikatzeko betekizun gehigarri dagokionez (esku-hartze horiek estatu kideek zehaztu dituzte Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 aldirako plan estrategikoetan, erregelamendu horri jarraituz).

f) Kanpaina edo mahastizaintzako kanpaina: urte jakin bateko abuztuaren 1etik hurrengo urteko uztailaren 31ra bitarteko aldia.

3.– Agindu honetan araututako laguntzak Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren kontura finantzatuko dira.

Hasiera batean, 2.146.000 euroko partida bat jarri da. Hala ere, eskabide onargarriei erantzuteko zenbatekoak gainditu egiten baditu hasieran jarritako funts horiek, partida handitu ahal izango da, gehienez % 40ra arte, baldin eta aurrekontu-baliabiderik bada, gehienez guztira 1.250 hektareako azalerari laguntza eman ahal izateko. Partida handitzen bada, Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariak dagokion ebazpena emango du, laguntzak emateko prozeduraren ebazpena baino lehen. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 23.2 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko.

Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuaren 12. eta 13. artikuluen arabera –275/2020 Dekretua, abenduaren 9koa, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa–, erakunde ordaintzaileak –landa-garapenaren eta Europako politiken arloan eskumena duen zuzendaritzak zehazki– zuzenean gauzatuko du gastuak baimentzeko eginkizuna. Bestalde, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-organoei eskatzaileei informazioa eta aholkularitza emateko, eskabideak jasotzeko eta administrazio- eta landa-kontrolak egiteko jarduerak egingo dituzte, zeinak dagokien lankidetzak-hitzarmenaren bidez artikulatuko baitira. Era berean, erakunde ordaintzailearen likidazio-bulego ofizialak diren aldetik, onuradunei emandako laguntzen zenbatekoak intsuldatuko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailearen zuzendariak emandako ordainketa-exekuzioko ebazpena betez.

2. oinarria.– Onuradunek, onartuak izateko, bete behar dituzten betekizunak.

1.– Mahastizaintza eta Ardogintzaren Sektoreko 2023-2027 aldiko Esku Hartzearen esparruan, uzta berderako laguntzak jaso ahal izango dituzte mahastizainek, baldin eta mahastiak ardoa ekoizteko ardogintza-mahatsetarako erabiltzen badituzte eta mahasti horiek Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan badauzkate.

2.– Mahastizainek, eskabideak aurkezteko epea hasten den egunean, ustiatzaile/kultibatzaile gisa inskribatuta egon beharko dute mahastizaintza-erregistroan, eta haien lurzatiak adierazi beharko dituzte laguntza-eskabidean.

3.– Eskatzaile hauek ezin izango dira laguntzaren onuradun izan:

a) Indarrean dagoen araudia urratzen dutenak, bai ustiategiko edozein mahasti-azalerako mahasti-plantaziori dagokionez, bai Batzordearen (EB) 2018/273 Erregelamendu Delegatuaren VI. kapituluaren arabera egin beharreko nahitaezko aitortzei dagokionez –(EB) 2018/273 Erregelamendu Delegatua, 2017ko abenduaren 11koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 1308/2013 Erregelamendua osatzen duena mahatsondoak landatzeko baimenen erregimenari, mahastizaintza-erregistroari, erlasionatutako dokumentuei, ziurtapenari, sarrera eta irteeren erregistroari, nahitaezko aitortzei, jakinarazpenari eta jakinarazitako informazioaren argitalpenari dagokionez; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 1306/2013 Erregelamendua osatzen duena kontrol eta isunei dagozkionez, eta Batzordearen (EE) 555/2008, (EE) 606/2009 eta (EE) 607/2009 erregelamenduak aldatu eta Batzordearen (EE) 436/2009 Erregelamendua eta (EB) 2015/560 Erregelamendu Delegatua indargabetzen dituenak–.

Aurreko paragrafoan aipatutako nahitaezko aitortzen ondoretarako, Mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko nahitaezko aitortzei buruzko uztailaren 31ko 739/2015 Errege Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da, eta baliozkotzat joko da Errioxa Jatorri Deitura Erregulatzeko Kontseiluko informazioa.

b) Mahastizaintza eta Ardogintzako Sektorea Bultzatzeko 2024-2027 Programako aurreko deialdiren batean onartutako eskabideren bat daukaten mahastizainek ezingo dute laguntzarik jaso hurrengo bi deialdietan, baldin eta:

– Ez bazuten eskatu onartutako eragiketa baten ordainketa egitea, autonomia-erkidegoak ezarritako epea bukatuta.

– Uko egin bazioten eskatu eta onartutako laguntza-eragiketa bati, salbu eta uko egitearen berri eman bazuten aurreko bi deialdietako batean ezarritako epearen barruan, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 37.2 artikulua araber.

Kasu horiek ez dira aplikatuko ezinbesteko kasuetan edo salbuespenezko inguruabarretan.

c) Frogatzen bada laguntza eskatu dutenek artifizialki sortu dituztela agindu honek, onartuak izateko edo lehentasuna edukitzeko, ezarritako irizpideak betetzeko baldintzak.

d) Nolanahi ere, ezingo dituzte laguntza hauek jaso Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoera galarazleren batean daudenean.

e) Uraren legez kontrako erabilera egiteagatik uraren arloko eskumena duen agintaritzaren zehapen irmoa jaso duten eskatzaileek ez dute laguntzarik jasoko laguntza jasotzeko aurkeztu dituzten hektarea ureztatuetakoa mahastien uzta berderako.

4.– Onuradunek enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa adierazi beharko dute, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren araber.

5.– 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, pertsona fisikoek eta juridikoek (zuzenbide publiko entitateak ez beste guztiek), irabazteko asmoa duten heinean eta Merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen mende badaude, lege horretan ezarritako ordainketa-epealdiak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute onuradun-izaera hartzeko.

Laguntza-eskabidea aurkezten den unean egiaztatu ahal izango da hori, edo, beranduenez, lurzati onargarrien behin-behineko zerrendari alegazioak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

3. oinarria.– Dirulaguntzak jaso ditzaketen ekintzak.

Eskuz egindako mahats-biltze berderako bakarrik emango da uzta berderako laguntza.

4. oinarria.– Lurzatiek, onartuak izateko, bete behar dituzten betekizunak.

1.– Hauek bakarrik bildu ahal izango dira uzta berderako laguntzara: Euskal Autonomia Erkidegoan onartuta dauden barietateekin ardotarako mahatsa ekoizteko erabiltzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuko lurzatiei dagozkien eskabideak.

2.– Eskabideetan, mahastizaintzako lurzati bat edo gehiago adierazi ahal izango dira.

3.– Lurzati bakoitzaren azalera 0,3 hektareakoa (ha) edo handiagoa izan behar du, eta esparru oso batez edo gehiagoz osatuta egon ahal izango da. Muga hori mahastizaintza-erregistroan inskribatuta dagoen azalaren arabera kontrolatuko da. Mahastizaintzako lurzattia osatzen duten esparru guztietarako laguntzarik eskatzen ez bada, lurzatiaren barruko esparru mugakideen azalera batuz egiaztatuko da 0,3 hektareako muga. Mahastizaintzako lurzati baten barruan bata bestearengandik isolatuta dauden esparruen kasuan, esparru bakoitza modu independentean kontatuko da azalera-betekizunei dagokienez. Horretaz den bezainbatean, dagokion lurralde historikoko mahastizaintza-erregistroko informazioa hartuko da kontuan.

4.– Laguntza-eskabide bakoitzean 10 ha-ko azalera onartuko da gehienez ere.

5.– Laguntza jasotzeko aurkezten den mahastiak 2025-2026 kanpainaren aurreko hiru kanpainen aurretik landatua behar du izan.

6.– Laguntza jasotzeko aurkezten den mahastiak baldintza begetatibo egokiak izan behar ditu, eta ez du natura-hondamendirik jasan izan behar, uzta eskastu edo ezereztu duen izotzik edo kazkabarrik, esate baterako.

7.– Eskabideek onartuak izateko betekizunak betetzen ez dituztenean, eskabide horiek zergatik baztertu diren adieraziko zaie eskatzaileei.

5. oinarria.– Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2026ko apirilaren 29an bukatuko da. Ondorioz, eta urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ez da onartuko 2026ko apirilaren 30ean aurkeztutako eskabiderik, ez eta hortik aurrerako datetan aurkeztutakorik ere.

2.– Eskabidearekin batera, 6. apartatuan azaldutako agiriak aurkeztu behar dira.

3.– Mahastizaintza eta Ardogintzaren Sektoreko Esku Hartzearen esparruan laguntzak eskatu eta jasotzen dituztenek, pertsona fisikoak, pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko enteak izan, bitarteko elektronikoa hutsez izango dituzte harremanak agintaritzaren eskudunekin, hala ezartzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua pertsona juridikoentzat eta nortasun juridikorik gabeko entitateentzat eta, era berean, hala ezartzen baitu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikulua pertsona fisikoentzat, azken kasu horretan haien ezaugarri profesionalak kontuan hartuta.

4.– Laguntza-eskabideak, aldaketak, komunikazioak eta ordainketa-eskabideak foru-aldundien kanal elektronikoa hauen bidez aurkeztuko dira:

– Arabako Foru Aldundia: <https://www.araba.eus/MahastiAraba>

– Bizkaiko Foru Aldundia: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

– Gipuzkoako Foru Aldundia: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/erregistroa>

Izapidetze elektronikoa egiteko eredu normalizatuak eta jarraibideak eskuragarri egongo dira foru-aldundi bakoitzaren aipatu egoitza elektronikotan. Ereduok koherenteak izango dira deialdi honetako estipulazioekin.

5.– Agindu honetan aurreikusitako izapideak ordezkari baten bitartez egiten badira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkariak. Ildo horretatik, ordezkariak egiaztatuta egongo da baldin eta foru-aldundi bakoitzaren Ordezkarien Erregistro Elektronikoan inskribatuta badago. Erregistro horretara sartzeko, 4. apartatuan jasotako helbideetara jo beharko da.

Ordezkaritza erregistro horietan inskribatuta ez badago, borondatezko ordezkari emateko inprimaki normalizatua betez egiaztatu beharko da ordezkari –inprimaki hori eskuragarri egongo da foru-aldundi bakoitzaren egoitza elektroniketan, eta 4. apartatuan jasotako helbideen bitartez eskuratu ahal izango da–, edo, bestela, zuzenbidean onartutako beste edozein modutan.

6.– Eskatzaileek laguntza-eskabidearen eredu normalizatua bete beharko dute eta, horrekin batera, informazio eta dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Eskatzailearen identifikazioa:

– Aurkezteko bitarteko telematikoen bidez egiaztatzen da identifikazioa.

a.1.– Pertsona baimendu baten bidez aurkeztuz gero, halakotzat identifikatuko da eskabidea egitean.

a.2.– Ustiategiaren datuak: kodea, eta lurzati titulartasun partekatuko ustiategi baten parte den ala ez, Nekazaritza Ustiategiaren Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legearen arabera.

a.3.– Banku-datuak, laguntza ordaindu ahal izateko. Hala ere, laguntza eman dela jakinarazten den unean ere aurkeztu ahal izango da informazio hori.

a.4.– Hala badagokio, zerga-datuak eta Gizarte Segurantzako afiliazio-datuak.

a.5.– Onuraduna enpresa-talde bateko kide den ala ez.

b) Uzta berderako eskabidean adierazitako lurzatiari edo lurzatiei buruzko informazioa:

b.1.– Laguntza jasotzeko aurkeztutako mahastizaintzako lurzatiaren edo lurzatiaren identifikazioa, kokapena eta azalera; lurzati osatzen duten esparruen zerrenda, eta mahastizaintza-erregistroaren arabera mahastiari dagokion zenbakia. Mahastizaintzako esparru edo lurzati berean mahats-barietate beltz eta zuriak baldin badaude batera, edota landatze-urte desberdinetakoak, barietate ugariaren ezaugarriak hartuko dira kontuan azalera horretarako.

Lurzati eta ustiategi bakoitzarentzat, dagokion lurralde historikoko nekazaritzako ustiategiaren erregistroan eta mahastizaintza-erregistroan azaltzen diren datuak hartuko dira balioduntzat: eskatzailearen adina, mahasti-zenbakia, barietatea, mahats mota, landatze-urtea, azalera inskribatua, esparrua eta mahats-produkzioa (kg).

b.2.– Uzta berdea egiteko modua: bitarteko propioen bidez edo kanpoko enpresa baten bidez (hirugarrenen bidez).

c) Eskatzaileek erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko dute eskabidearekin batera eta, adierazpen horretan, deklaratu behar dute betetzen dituztela laguntza jasotzeko baldintzak, 905/2022 Errege Dekretuaren 3., 35. eta 36. artikuluen arabera, eta, horrez gain, betetzen dituztela 2. eta 4. oinarrietan zehaztutako betekizunak.

d) Eskatzaileek konpromisoak hartzeko dokumentu bat sinatu beharko dute eskabidearekin batera eta, dokumentu horretan, deklaratu behar dute onuradun izanez gero beteko dituztela konpromiso orokor hauek ere:

d.1.– Laguntza onartzea, edo laguntzari uko egiten diotela komunikatzea laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena egiten den egunetik 10 eguneko epean.

d.2.– Laguntza jasotzeko aurkeztutako lurzatietan uzta berdea egitea, eskuzko metodoak erabiliz. Mahatsondo-enborretako mahats-mordo guztiak kendu beharko dituzte eta moztutako mahats-mordoak lurzatian bertan barreiatuta utzi beharko dituzte.

d.3.– Uzta berdea 2026ko uztailaren 15a baino lehen egitea eta komunikatzea.

d.4.– Laguntza emateko onartua izan den mahastizaintzako azalera osoan egitea uzta berdea.

d.5.– Laguntza-eskabidea aurkeztu baino lehen, ez egitea mahats-bilketa oso edo partzialik laguntza jasotzeko aurkeztutako lurzatietan.

d.6.– Laguntzaren xede diren mahastiak baldintza begetatibo eta sanitario onetan edukitzea.

d.7.– Administrazio-kontroletarako eta lekuan bertan egiten diren kontroletarako erraztasunak ematea, eta eskatzen zaizkien neurri zuzentzaile edo konpontzaileak hartzea. Halaber, egin beharreko egiaztatzeetarako beharrezkoak diren egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, esanez ez dagoela sartuta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako legezko debekuren baten pean, III. eranskineko ereduaren arabera.

7.– Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek automatikoki egiaztatuko dituzte NANA, IFZa, AIZa eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiriak. Era berean, automatikoki egiaztatuko dute egoitza fiskala dagokion lurralde historikoan duten eskatzaileek zerga-betebeharrak egunean dituztela. Hala ere, eskatzaileak espresuki uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatzen zaion agiria aurkeztu beharko du, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo duten eskatzaileek dagokion ogasun-ziurtagiria aurkeztu beharko dute eskabi-dearekin batera.

8.– Eskatutako dokumentazioa beste administrazioen batean entregatuta badago eta eskatzaileak espresuki deklaritzen badu dokumentazio horretan ez dela aldaketarik egin, aurkeztutako joko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoarekin bat. Dokumentazioa zer administrazioetan eta noiz aurkeztu duen adierazi beharko du eskatzaileak. Hala ere, eskatzaileak espresuki uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, dokumentazioa aurkeztu beharko du.

9.– Nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu daitezke laguntza-eskabidea eta eskatutako dokumentazioa. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabili behar da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, egoki iritziz gero, dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu ahal izango da.

10.– Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, eskabideak ez baditu betetzen 2. eta 4. oinarrietan ezarritako betekizunak edo aplikatzekoa den Europako edo Estatuko legediak eskatutako beste edozein betekizun, eskatzaileei eskatu ahal izango zaie bost egun balioduneko epean zuzendu dezatela gabezia edo aurkeztu ditzatela nahitaezko agiriak, hau ere ohartarazita: hala egin ezean eskabidean atzera egin dutela iritziko zaiola, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariak horri buruzko ebazpena eman ondoren –hura baita Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileko zuzendaria–, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

11.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzen ondorioz Erakunde Ordaintzaileari edo, hala badagokio, lurzatiak dauden lurraldeko foru-aldundiari egiten zaion edozein komunikazio, eskabide edo eskaera –laguntza-eskaera barne– aurkeztu ondoren zuzendu ahal izango da, ageriko akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak baditu eta Erakunde Ordaintzaileak berak edo dagokion foru-aldundiak aitortu baditu akats horiek.

6. oinarria.– Hautaketa-prozedura.

1.– Uzta berderako laguntza jasotzeko aurkezten diren lurzatiak, onargarriak diren eskabideetan daudenak, I. eranskinean bildutako lehentasun-irizpideetako haztapena aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira.

Berdinketarik egonez gero, azalera handieneko lurzatiei emango zaie lehentasuna, eta, berdinketak jarraitzen badu, lehenago aurkeztu direnei, kontuan hartuta sarrera-erregistroko data, ordua, minutua eta segundoa.

2.– Lurzati onargarri eta aurreko apartatuaren arabera lehenetsien behin-behineko zerrenda, bai eta behin-behinean onartzen ez diren lurzatiak ere, dagozkion kanal elektronikoen bidez komunikatuko zaizkie eskatzaileei, eta horiek alegazioak eta dokumentu eta egiaztatiriak aurkeztu ahal izango dituzte bost egun balioduneko epean. Era berean, behin-behineko zerrenda hori argitaratzen den egunera arte, osorik baino ezin izango zaio uko egin aurkeztutako eskabide bati. Aldi horretan ez da onartuko uko-egite partzialik.

3.– Behin-behineko zerrendaren aurka aurkeztutako alegazioak aztertu eta ebatzi ondoren, behin betiko zerrenda egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan deialdi honetarako onargarri eta lehenetsizat jotako lurzatiena.

4.– Dagokion lurralde historikoko foru-aldundiak neurtuko du laguntzaren xede diren lurzati onargarrietako mahastien azalera, eta azalera hori izango da laguntza jasotzeko eskubidea izango duen behin betiko azalera, zeina aldatu ahal izango baita tokian bertan egindako kontrolen arabera.

5.– Lurzati onargarri eta lehenetsien behin betiko zerrenda, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileko zuzendariak sinatuta, 2026ko ekainaren 7a baino lehen komunikatuko zaio Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Nekazaritzako Ekoizpen eta Merkatuen Zuzendaritza Nagusiari.

6.– Aurreko apartatuan aipatzen den informazioa oinarritzat hartuta, lurzati onartuen behin betiko zerrenda egingo du Fruta, Barazki eta Mahastizaintza eta Ardogintzaren Zuzendariordetza Nagusiak, eta 2026ko ekainaren 15a baino lehen komunikatuko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileari zer lurzati onartzen dituen, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren Esparruan Mahastizaintza eta Ardogintzaren Sektoreko Esku Hartzea arautzen duen urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 40.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

7. oinarria.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Aurreko oinarrian deskribatutako prozesua bukatu ondoren, Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileko zuzendaria den aldetik, uzta berderako eskatutako laguntza onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango du eskatutako lurzatiei dagokienez.

Lehiaketa bidezko lehia-konkurrentziako prozeduraren ebazpena EHAA-n argitaratuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta argitalpenak jakinarazpen-ondorioak izango ditu.

Hala ere, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietan nekazaritzaren arloko eskumena duen zuzendaritzara bidaliko dira ebazpenak, bakoitzari bere lurralde historikoan aurkeztutako eskabideei dagozkienak, onuradunei banan-banan jakinaraz dakien. Nolanahi ere, lehenengo egin denaren data joko da jakinarazpen-datatzat.

2.– Ebazpenak abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan jasotako edukia jaso beharko du gutxienez, bai eta beste informazio hau ere:

A) Baietsitako eskabideei dagokienez:

- 1.– Onuradunen izena edo sozietate-izena, NANA, IFZa edo AIza.
- 2.– Onuradun bakoitzari uzta berdea egiteko onartu zaizkion lurzatiak eta laguntzaren xede den azalera.
- 3.– Lortutako puntuazioa.
- 4.– Uzta berdea egiteko data komunikatzeko gehieneko epea, uzta berdea egiteko gehieneko epea eta uzta berdea ordaintzeko eskaera aurkezteko gehieneko epea.
- 5.– Emandako laguntzaren gehieneko zenbatekoa.
- 6.– Onuradunak eman zaion laguntzari uko egiteko daukan epea.

B) Ezetsitako eskabideei dagokienez:

- 1.– Eskatzaileen izena edo sozietate-izena, NANA, IFZa edo AIza.
- 2.– Laguntza ukatzeko arrazoiak.
- 3.– Ebazpena 2026ko ekainaren 30a baino lehen eman eta jakinaraziko da. Epe hori bukatu eta oraindik ere ebazpen espresurik eman ez bada, ezetsizat joko da eskabidea, hala ezartzen baita Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan.

Prozeduraren ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, edozein unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

4.– Eskatzaileak 10 eguneko epea izango du, laguntza onartzeko ebazpena jakinarazten zaionetik, onartutako eragiketei uko egiten diola adierazteko.

8. oinarria.– Laguntzaren kalkulua.

1.– Hauxe izango da uzta berderako laguntza: mahats-mordoak suntsitu edo kentzeak duen zuzeneko kostuetarako ekarpen bat eta mahats-mordoak suntsitze edo kentzeak diru-sarreretan eragiten duen galera arintzeko konpentsazio bat.

2.– Uzta berderako laguntzaren hektareako zenbatekoa honela kalkulatu da: mahats-mordoak suntsitu edo kentzeak duen zuzeneko kostuen eta suntsitze edo kentze horrek diru-sarreretan eragiten duen galeraren baturaren % 50:

a) Mahats-mordoak suntsitzeagatik edo kentzeagatik lagundu daitezkeen kostuen kalkulua kostu unitarioen baremo estandarretan oinarrituta egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak 2026ko otsailean egindako kostu-azterketaren arabera (II. eranskinean daude jasota).

b) Diru-sarreretan eragindako galeren konpentsazioa.

b.1.– Urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 41. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, hau izango da diru-sarreretan eragindako galeren konpentsazioa: laguntza jasotzeko aurkeztu den lurzatian uzta berdea egiteak diru-sarreretan eragiten duen galeraren % 50eko konpentsazio ekonomikoa. Diru-sarreretan eragindako galera honela kalkulatu da: laguntzaren xede den lurzatiko mahatsak azken hiru kanpainetan izandako batez besteko prezioa bider datuak dauden azken hiru kanpainetan lurzati horrek izandako batez besteko errendimendua bider laguntzaren xedeko azalera. Erreferentzia-kanpainaren baterako daturik ez badago, kanpaina hori baztertu ahal izango da batez besteko errendimendua kalkulatzeko. Deialdi honetarako, 2021-2022, 2022-2023 eta 2023-2024koak izango dira erreferentzia-kanpainak.

b.2.– Laguntza-eskabidean sartutako lurzatiak hiru kanpaina horietan izan duen ekoizpen espezifikoaren berririk ez bada, honela kalkulatu da mahasti-lurzati bakoitzaren batez besteko errendimendua: 2022ko, 2023ko eta 2024ko kanpainetan deklaratuako ekoizpen osoaren batez bestekoa, Mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko nahitaezko aitortu buruzko uztailaren 31ko 739/2015 Errege Dekretuaren 3. artikulua araberakoa, zati ustiategi batean produkzioan dagoen azalera osoari dagokion azalera oso aitortua.

Laguntza errendimendu horrengatik eskatzen dela joko da. Laguntza jasotzeko eskubidea ematen duen errendimendua ezin izango du gainditu kontseilu arautzaileek beren jatorri-dei-turetarako 2026rako ezarritako gehieneko errendimendu babesgarria (II. eranskinean daude jasota).

Mahatsaren batez besteko balio hau hartuko da kontuan laguntzaren xede den lurzatirako: uzta berdearen xede diren lurzatiak dauden lurralde-eremuan kontuan hartutako kanpainetako mahatsaren batez besteko balioa. Horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko mahastizainek 2022., 2023. eta 2024. urteetako uztetan jatorri-deituren pean ekoiztutako mahatsa saltzeagatik jasotako batez besteko prezioak II. eranskinean daude jasota.

3.– Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) ez da diruz laguntzeko modukotzat hartuko.

9. oinarria.– Uzta berdea egitea.

1.– Onuradunek beren lurzatiak non dituzten, hango foru-aldundian nekazaritzaren arloko esku-mena duen organoari komunikatu beharko diote uzta berdea egiteko data, eta laguntza ordaintzeko eskatu beharko dute, 2026ko uztailaren 15ean beranduenez, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 42. artikulua araberara. Komunikazioa bitarteko telematikoen bidez egingo da, eskatzailearen eskura jarriko den ereduaren araberara, 5. oinarrian xedatutakoari jarraikiz.

2.– Uztailaren 31 baino lehen, kontrolak egingo zaizkie, lekuan bertan, laguntza eman zaien eta ukoa aurkeztu ez duten lurzati guztiei, bat etorrita Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruko esku-hartzeak eta beste laguntza batzuk kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema arautzen duen abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretuak ezarri duenarekin. Hauek egiaztatuko dira, gutxienez:

a) Kasuan kasuko mahastia existitzen dela eta kontuan hartu den azalera zuzen erabiltzen dela eta, hortaz, baldintza begetatibo onei eusten zaiela. Egiaztatuko da eragiketak ez diola kalterik egiten ingurumenari, eta ondorio fitosanitario negatiborik ere ez duela eragiten, Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko (EB) 2022/126 Erregelamendu Delegatuaren 17. artikulua 7. eta 8. apartatuen araberara.

b) Onartutako azalerako mahats-mordo guztiak guztiz kendu edo suntsitu direla.

c) Zer metodo erabili den uzta berdea egiteko.

d) Mahatsa merkaturatzeko moduan dagoen fasera iritsi aurreko hazkunde-garaian egin dela uzta berdea.

10. oinarria.– Laguntza onuradunei ordaintzea.

1.– 905/2022 Errege Dekretuaren 42. artikulua ezartzen duenaren arabera, laguntzaren onuradunek lurzatiak non dituzten, hango foru-aldundian nekazaritzaren arloko eskumena duen organoari aurkeztu beharko diote onuradunek laguntza ordaintzeko eskabidea, edo uzta berdea egiteko data komunikatu. Ondorio horietarako, uzta berdea egiteko dataren komunikazioa har daiten ordaintzeko eskaeratzat.

Eskaera edo komunikazioa bitarteko telematikoen bidez egingo da, eskatzailearen eskura jarriko den ereduaren arabera, 5. oinarrian xedatutakoari jarraikiz. Laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunean hasiko da aurkezteko epea, eta 2026ko uztailaren 15ean amaituko da.

Ordaintzeko eskaerarekin batera ordaintzen fakturak eta egiaztagiriak aurkezteko eskatu ahal izango dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek edo, uzta berdea bitarteko propioen bidez egin bada, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkezteko.

2.– Foru-aldundiak egingo ditu administrazio-kontrolak eta lekuan bertan egin beharreko kontrolak eta, ondoren, kontrolen txostenak eman eta ordaintzeko eskaerak baiesteko edo ezesteko proposamenak egingo ditu. Aurrekoaren ondorioetarako, ez da uzta berdearen laguntza ordainduko:

a) Dagozkion lurzatian edo lurzatietan 2026ko uztailaren 15a baino beranduago egin edo komunikatu denean uzta berdea.

b) Lurzatiaren errendimendua ez denean zerora murrizten eta mahats-mordo guztiak ez direnean kentzen.

c) Uzta berdearen data baino lehen ekoizpen osoa edo haren zati bat galtzen bada natura-hondamendi baten ondorioz. Natura-hondamendiak (EB) 2022/2472 Erregelamenduaren 2. artikulua 2. eta 38. apartatuetan adierazitako definizioaren arabera izan behar du –(EB) 2022/2472 Erregelamendua, Nekazaritza eta basogintza sektoreetako eta landa-eremuetako zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat deklaritzen dituen, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz–.

Aurreko paragrafoa betetzeko, eguraldi-baldintzak direla-eta (izozteak, kazkabarra, euria edo lehortea) lurzati horretako ekoizpenaren % 30 baino gehiago galtzen denean iritziko zaio natura-hondamendia gertatu dela. Ekoizpenaren zenbatekoa zehazteko, aurreko hirurtekoko urteko batezbestekoa hartuko da kontuan, edo aurreko bost urteetan oinarritutako hirurtekoko batezbestekoa, zifra handiena eta zifra txikiena alde batera utzita.

d) Lekuan bertan egindako kontroletan ikusten bada mahastia ez dagoela baldintza begetatibo onetan eta haren errendimendua lurzati horretarako espero eta eskatutako errendimendua baino nabarmen txikiagoa dela.

3.– Aurrekoa oinarri hartuta, eta beharrezkoak diren egiaztapenak egin ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileko zuzendariak ebazpena emango du. Horren bidez, onuradunaren ordaintza-eskaera onartu edo ukatuko du, eta dagokion ordaintza-ebazpena emango, hala badagokio.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen Bulego Likidatzaile Ofizial diren aldetik, bakoitzaren lurralde historikoan lurzatiak dituzten onuradunei emandako laguntzen zenbatekoak ordainduko dituzte, ordainketa egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileko zuzendariak emandako ebazpena betetzeko, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik –275/2020 Dekretua, abenduaren 9koa, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko–.

4.– Laguntza 8. oinarrian ezarritako xedapenen arabera kalkulatu da.

5.– Ordainketa bakarrean ordainduko zaio laguntza onuradunari. Ordainketa hori 2026ko finantza-ekitaldian egingo da, beranduenez 2026ko urriaren 15ean.

6.– Azkenean ordaintzen den zenbatekoak ezin du gainditu onartutako zenbatekoa.

11. oinarria.– Kontrolak.

1.– Foru-aldundiek kontrol-jarduketa eraginkorrak egingo dituzte Europar Batasunaren finantza-interesak babesten direla bermatzeko.

2.– Laguntza onartu aurretik, kontrolak egin ahal izango dira lekuan bertan, mahasti-lurzatietan uzta ez dela osorik edo partzialki bildu zehazteko, eta alderdi garrantzitsuak egiaztatzeke, hala nola mahastiaren baldintza begetatiboak edo natura-hondamendiek eragindako kaltea, halakorik bada. Horri dagokionez, dokumentu bidezko froga fede-emaileak aurkezteko ere eskatu ahal izango zaio eskatzaileari.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak kontrol-plan bat ezarriko du Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2116 Erregelamenduaren IV. tituluan zehaztutako kontrol-xedapenei jarraituz –Nekazaritza Politika Erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa da erregelamendu hori–.

4.– Kontrol-jarduera guztiak eta haien emaitzak dagokion kontrol-txostenean erregistratuko dira. Antzemandako akatsen berri emango zaie onuradunei, eta, hala badagokio, hartu beharreko neurri zuzentzaileen berri ere bai.

12. oinarria.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Aurkeztutako eragiketa finantzatzeko agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak jasotzea bateraezina izango da beste administrazio batzuek edo beste ente publiko edo pribatu nazional zein nazioarteko batzuek xede bererako ezartzen duten beste edozeinekin.

2.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko (EB) 2021/2116 Erregelamenduaren 36. artikuluan eta Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruko esku-hartzeak eta beste laguntza batzuk kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema arautzen duen abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoak bermatu egingo du kontrol-sistema eraginkor bat egongo dela agindu honetan arautzen den uzta berdearen finantzaketa bikoitza galarazteko.

13. oinarria.– Datuen babesa.

Agindu hau aplikatuta biltzen diren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoari jarraikiz tratatuko dira.

I. ERANSKINA

Euskadin uzta berdearen neurria 2026ko ekitaldian aplikatzeko lehentasun-irizpideak, Euskal Autonomia Erkidegoak mahastizaintzaren sektorerako dituen estrategia eta helburuen arabera.

Euskadin uzta berdea egiteko neurria-2026. Lehentasun-irizpideak	Puntuak
Mahats beltzaren ekoizpena.	6
Eskabideak aurkezteko epea hasten den egunean gutxienez 6 ha-ko mahasti-azalera duten ustiategiak. Lehentasunezko ustiategiaren baldintza betetzen badute, gutxienez 3 hektareakoa izango da azalera hori.	6
2023-2024 kanpainan batez besteko errendimendua gutxienez 1.000 kg/ha-koa izan duten lurzatiak, ekoizpen ekologiko ziurtatukoak izan ezik, horien errendimendua 250 kg/ha-koa izan beharko baita.	6
lazko abuztuaren 1etik eskabideak aurkezteko epea hasi arte ustiategiaren titulartasuna aldatzeko eskaerarik egin ez duten lurzatiak, kontuan hartu gabe ezinbesteko arrazoiak, salbuespenezko egoerak edo bestelako egoera bereziak, esaterako jaraunspenak, legezko banantzeak eta jabe-aldaketak.	6
1980. urtearen ondoren landatutako mahasti-lurzatiak.	2
Mahastizain gaztea. Halakotzat hartuko da laguntza-eskabidea aurkezten duen urtean gehienez 40 urte dituen eskatzailea.	1
Urriaren 4ko 35/2011 Legearekin bat etorritik, titulartasun partekatuko erregistroan inskribatuta dauden ustiategiak.	1
Titularra emakumezkoa duten ustiategiak (titular bakarra edo, entitate juridikoa bada, gehiengoduna).	5

2026ko apirilaren 10a, ostirala

II. ERANSKINA

KOSTU UNITARIOAK, MAHATSAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA ETA BABESTUTAKO GEHIENEOKO EKOIZPENA LURZATI BAKOITZEKO GEHIENEOKO LAGUNTZA KALKULATZEKO

Jatorri-deitura eta barietatea	Mahats-mordoak eskuz kentzeagatik diruz lagundu daitekeen zenbatekoa (€/ha) ⁽¹⁾	Prezioa (€/Kg) ⁽²⁾	Diruz lagundu daitekeen gehieneko errendimendua (kg/ha) ⁽³⁾
Errioxako JDK-beltza	407,35	0,75	6.500
Errioxako JDK-zuria	405,54	0,68	9.000
Arabako Txakolina	579,00	1,33	13.000
Getariako Txakolina	681,50	1,37	13.000
Bizkaiko Txakolina	551,00	1,56	11.500

⁽¹⁾ Kostu unitarioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak 2026ko otsailean egindako kostu-azterketaren arabera.

⁽²⁾ Euskal Autonomia Erkidegoko mahastizainek 2022., 2023. eta 2024. urteetako uztetan jatorri-deituren pean ekoiztutako mahatsa saltzeagatik jasotako batez besteko prezioak.

⁽³⁾ Euskal Autonomia Erkidegoko jatorri-deituren kontseilu arautzaileek babestutako gehieneko ekoizpena, 2025-2026 kanpainarako.

III. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Betekizunak betetzen direla eta aurkeztutako datu eta agiriak zehatzak direla azaltzeko erantzukizunpeko adierazpena. Deslokalizaziorik egingo ez dela azatzeko adierazpena:

Nik, _____ [nire izenean] / [ordezkatzen dudan entitatearen izenean],

nire erantzukizunpean adierazten dut betetzen ditudala laguntza jasotzeko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako betekizunak, eta ez nagoela jarraian aipatzen diren gainerako lege-debekuetako ezeinen pean:

– Ez nago zigortuta, epai irmo baten bidez, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera ez izatera, eta ez nago zigortuta, epai irmo baten bidez, prebikazioagatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe eralgitzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik.

– Ez dut egin hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaririk, ez nago kaudimengabetzat deklaraturik ezein prozeduratan, ez nago hartzekodunen konkurtsoan deklaraturik –konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu–, eta ez nago epailearen esku-hartzearen mende edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta, hartzekodunen konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

– Ez dut sorrarazi Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko arrazoirik, eta ez naute haien errudun deklaratu.

– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzailea edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkari izanik, ez nago egoera hauetakoren batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo ez nago Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean, arau horretan edo gai horiek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

– Egoitza fiskala ez daukat paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean.

– Egunean daukat dirulaguntzak organo emaileari berreskuratu behar izateagatik sortutako obligazioen ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera –Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa–.

– 30.000 eurotik gorako dirulaguntza baldin bada, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatu behar denean, betetzen ditut lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak.

– Ez nago zehatuta, ebazpen irmo bidez, dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzera, hala ezartzen duen edozein legeren jarraituz. Zehazki, ez dut administrazio- edo zigor-zehapenik jaso sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tartea igaro gabe.

– Ez dut urratzen estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izateko betebeharrak, ez eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezartzeko betebeharrak ere (50 langiletik gorako enpresak).

– Entitate ordezkatuaren inskripzioa egiteko administrazio-prozedura ez dago etenda legez kontrako egintza penalen zentzuzko zantzuak aurkitzeagatik, bat etorri Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoarekin, harik eta ebazpen judizial irmoa eman eta dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen den arte (elkarteen kasuan; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.4 artikulua).

– Ez dut LGTBifobiaz jokatu, edo ez dut hura bultzatu edo sustatu, ez eta konbertsio terapiak sustatu edo egin ere (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).

– Ez nago zehatuta Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehazpena ordaindu arte.

– Bete dut desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erreserba-kuota, edo egiaztatu dut abian jarri direla hori betetzeko neurri alternatiboak.

– Fundazioen kasuan, estatutuak egokitu ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen xedatutakora, eta egokitzapen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu da (Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 1. xedapen iragankorra).

– Ez daukat enpresa-deslokalizazioaren deklaraziorik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Betetzen ditut zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, legeak ezarritakoari jarraikiz (Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.6 eta 8. artikuluetako kasuetan). Eskatzailea ondasun-erkidego bat edo sozietate zibil bat bada, betekizun hori bete beharko dute bai entitateak berak, bai haren erkide edo bazkide guztiek, hurrenez hurren. Erkide edo bazkideren batek betekizun hori betetzen ez badu, ukatu egingo da laguntza.

– Botere adjudikatzailerak izanez gero, aplikatu beharreko sektore publikoko kontratazio-araudira egokitu ditut diruz lagundutako jarduketak gauzatzeko egiten diren kontratazioak, edo konpromisoa hartzen dut egin ditzakedan kontratazioak egokitzeke, eta konpromisoa hartzen dut, gastua justifikatzeko fasean, egindako kontratazio-prozedurak egiaztatzeke dokumentazioa aurkezteke.

Betekizunak betetzeari eta aurkeztutako datuak zehatzak izateari buruz, hau adierazten dut:

– Betetzen ditut indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak.

– Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan agiri guztiak ere, eta neure gain hartzen dut horren erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazio-
ren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari
ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiazta-
tzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, orduan ezinezkoa izango da dena delako
eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik ber-
tatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak
(Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen
69.4 artikulua).

Azkenik, adierazten dut konpromisoa hartzen dudala enpresa ez deslokalizatzeko –Dirulagun-
tzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezartzen den
moduan–, bai eta gainfinantzaketarik ez izateko ere –Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko
abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.h) artikuluan xedatutakoaren arabera–.